

ARAUTEGIA

ESKUBALOIA 2017

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Eskubaloi Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2017ko ekainaren 3 eta 4ean Gasteizko Arriaga Udal Kiroldegian. Hona hemen arautegia:

JOKATZEKO MODUA

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak :

Infantilak, 2003 eta 2004an jaioetako neska-mutilak.

TALDEEN OSAERA

Taldeak honela osatuko dira: gehienez hemezortzi jokalaria, ordezkari bat eta entrenatzailea, partidetan gehienez hamalau jokalariek parte ahal izango dutelarik. Talde bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bi taldek kamiseta berdinak eramatea gerta ez dadin.

JOKO ARAUAK

Partidak hogeita bostna minutuko bi zati izango ditu, bien artean bost minutuko atsedenaldia delarik. Zati bakoitzak 12,30 minutuko 2 tarte izango ditu, batetik bestera 2 minutuko emango dira aldaketak egin ahal izateko. Tarteen arteko atsedetik ez da izango.

Jokalaria bakoitzak lehenengoko hiru tarteren arteko bat jokatu beharko du gutxienez. Salbuespenak hauek izan daitezke:

- Lesionatutako jokalaria.(Jokalari batek atentzioa jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoan bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Azken tartean aldaketak libreak izango dira.

Aldaketaren bat egin nahi duen taldeak, baloiaren jabe denean bakarrik egin dezake.

Baloiak 50 – 52 zm eta 315 gr ko gehiengo pisua izango du (Talla 1). Edozein pegamentu mota debekatzen da.

Defentsa mistoak, 6:0 eta 5:1 debekaturik daude eta honela zigortuko dira:

- Lehen arau haustea: ohartarazpena.
- Bigarren arau haustea: entrenatzaileari egozpena.
- Hirugarren arau haustea: entrenatzailearen deskalifikazioa.

Partidaren amaieran, talde bakoitzak bosna penalti jaurtiko ditu, berdinketarik egonez gero irizpide moduan erabiliko direnak.

AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

→ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidaren lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

→ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

- 1º- Berdindutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
- 4º- Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 7º- kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituenak



EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XXXVI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



8º- kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituen

9º- Zozketa

SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako taldeei kategoria bakoitzeko.

EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Eskubaloiko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.